

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ZALDUONDOKO UDALA

#### **Jendaurrean jartzea etxez etxeko laguntza zerbitzuko eskumenak eta kudeaketa agindua lagatzeko hitzarmena, Arabako Foru Aldundiaren eta Zalduondoko Udalaren artekoa**

Udalbatzak, 2018ko ekainaren 20ko aparteko bilkuran, erabaki zuen onestea udalak etxez etxeko laguntza zerbitzuaren alorrean dituen eskumenak Arabako Foru Aldundiaren esku uztea zehazten duen hitzarmena formalizatzea eta zerbitzu hori Zalduondoko udalerrian osorik eskaintzeko ardura Arabako Foru Aldundiari ematea.

Erabaki honen aurka, zeinak administrazio bidea amaitzen baitu, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da EAEko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, bat etorritik Administrazio auziatarako jurisdikzioaren uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8., 10. eta 46. artikuluetan xedatutakoarekin. Hala ere, hori baino lehenago, eta nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio erabakia hartu duen organoari berari. Hilabeteko epea izango da horretarako, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita. "Hori guztia bat etorritik lehen aipaturiko Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin; hala ere, egoki iritziz gero, beste edozein gintza edo errekurtsu abiarazi ahal izango duzu zure eskubideak aldezteko."

Zalduondo, 2019ko urtarrilaren 28a

*Alkatea*

*GUSTAVO FERNÁNDEZ VILLATE*